

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

- 1 • Campus birtuala UPV-EHUren aukera berria
- 2 • Xabierko Frantzisko, Euskararen eguna
• LABURRAK
Bibliaren argitalpena "Solasean eta jolasean"
• In memoriam:
Anbrosio Zatarain eta Basarri
- 3 • Euskarazko komunikabide lokalak
• Izen eta deituren gaineko agindua
- 4 • William A, Douglass, "Lagun Onari" izendatua
• Durangoko Azoka sarean

eman ta zabal zazu



ATZERA  AURRERA

© Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Iñaki Goirizelaia Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresa-Unibertsitate Harremanetarako errektoreordea

CAMPUS BIRTUALA, UPV-EHUren AUKERA BERRIA

Etorkizuneko Unibertsitatea gaur



Iñaki Goirizelaia Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresa-Unibertsitate Harremanetarako errektoreordea da. Bestetik, Bilboko Industri eta Telekomunikazio Goi Mailako Eskolako irakasle titularra Ingeniaritza Telematikoaren arloan. Bera mintzatu zaigu UPV-EHUren campus birtualari buruz, dagoeneko abiarazi duten etorkizuneko unibertsitatearen gainean. Teknologia berriak gero eta garatzen ari dira eta, horren ondorioz, unibertsitate mailako ikasketak ere eurrez ari dira aldatzen. Teleformazioa -campus birtuala, alegia-, da adibiderik behinena.

Campus birtuala

Unibertsitatea ulertzeko era berria da campus birtuala. Ikasleari berak nahi duenean eta nahi eta ahal duen erritmoan ikasteko aukera ematen dio. Zalantzak ere nahi duenean galdetzeko aukera ematen dio, noiz-nahi. Era berean, irakasle zein ikaskideekin harreman iraunkorra izateko bidea egiten du. Horretarako, Internet sarbidea izan behar du ikasleak, dela etxean, unibertsitatean edo beste non edo non. Jakina, nabigatzen jakin beharra dago, eta unibertsitateko irakasgai batean, gutxienez, matrikulaturik egon behar da.

Campus birtuala bertango irakaskuntzaren alternatiba da. Bideokonferentzia du baliabideetako bat. Honek espazioaren muga hausten du eta leku apartetan daudenak elkarrekin harremanetan jartzen ditu, zuzen-zuzenean. Honenbestean, hemendik atzera ez da hiri batetik bestera mugitu beharrik izango unibertsitate ikasketak burutzeko. Etxean bertan jaso ahal izango dira eskolak bideo-hitzaldien bidez. Gastuak ere nabarmen urrituko dira horrela eginda,

eta lantokian bertan ere hainbat denbora erabili ahal izango da prestakuntzarako. Norberak zuzenduko bere formazioa, eta programak ere malgutasun handiagoz zehaztu ahal izango dira. Ez dago dudarik teknologia berriek prestakuntza prozesuak lagunduko dituztena. Halaber, muga fisikoak ere ez dira oztopo izango.

Datorren ikasturterako aukerak

Etorkizuneko aukera lausoa ez baina errealitate da campus birtuala. Unibertsitate arduradunek adierazi dutenez, hamahiru ikasgai ikasteko aukera dago urte akademiko honetan. Lehen lauhilabetean, adibidez, honakoak: Telebistaren irakaskuntza, Zuzenbiderako sarrera, Estatistika aplikatua: Datu analisia, Espetxe eta Auzi zuzenbiderako sarrera, Enpresen antolakuntza eta administrazioarako sarrera, eta C Programazioarako sarrera.

Bigarren lauhilabetekean, berriz, Zientzia eta Teknologiaren arazo etikoak XXI. mendean, Groupware-ra alderapena Intranet inguruan, Bihotzaren osasuna: Oinarri fisiologikoak, Bilakaera presioak gizatiar biztanlerian: Oinarrizko kontzeptuak, Kazetaritza elektronikoa multimedia, Multimedia erabakiera, eta Osasun profesionala.

Azaldu dugunaren arabera, UPV-EHU aintzindari dugu telematika sistemak Euskal Herrian hedatzen. Hala ere, erabiltzaile kopurua handitzea da hurrengo lana, ordenagailu parkea ez baita nahi bezain bizkor handitzen ari. Dena den, campus birtuala dugu etorkizuneko unibertsitatea, eta oso litekeena da urte batzuk barru teleformazioa izatea nagusituko den ikasteko modua. Era berean, atzerriko unibertsitateetako atek ere guztiz zabalduko zaizkio unibertsitate ikasleari.



ZALDI ERO



laburrak

Bibliaren argitalpena

elizen arteko
biblia



"Elizen arteko Biblia" da Bibliaren argitalpen berriaren izenburua. Euskal Herriko Elizbarru-tietako gotzainen eta Bibli Elkarte Batuak-en ekimena izan da. Hau ez da euskaraz argitaratzen den lehenengo Biblia, jakina, baina bai hebraierako eta greko-koko testu jatorrizkoetatik itzultitako lehen. Lan honetan eliza katolikoak zein protestanteek egin dute lan.

Gertakari erlijiosoa ez ezik, "Elizen arteko Biblia"-ren arduradunek argitalpena kultur gertakari ere badela adierazi dute, euskararen aberastea ekarriko baitu itzulpen honek.

"Solasean eta jolasean"

"Solasean eta Jolasean" aurkeztu du HABE erakundeak, gurasoentzako eta haurrekin lan egiten dutentzako material didaktikoa. Helburua belaunaldirik belaunaldi euskararen transmisioaren kalitatea ziurtatzea da, euskararen geroratzeari dagokionez familia lehen mailako elementua dela aintzakotzat harturik.

Material didaktiko honek bi modulo ditu. Lehen bideo bat da, ipuinez eta elkar hizketez osatua, eta hiru liburu-kuaderno ere badaramatza. Bigarren moduloko bideoa zenbait ipuin eta haur jolasen bilduma da.

IN MEMORIAM

Anbrosio Zatarain eta Basarri

Anbrosio Zatarain eta Iñaki Eizmendi "Basarri" hil dira. Biak ala biak ere euskaltzain izendatu zituzten euskararen alde egindako lanagatik.



EUSKALDUNON EGUNKARIA

Anbrosio Zatarain Donostian jaio zen 1912an, eta Espainiako Gerraren aurretik nabarmendu zen idazle taldekoa izan zen. Talde berak zuzendu zituen euskal literaturaren urratsak gerra ostean. Basarri, bersolari eta idazlea, idazle belaunaldi berekoa izan zen.

Anbrosio Zatarain eta Basarriren izenekin batera, beste hainbat lagun ari izan ziren talde honetan. Besteak beste, Lino Akesolo, Fernando Artola, Imanol Berriatua, Eusebio Erkiaga, Andima Ibiñagabeitia, Telesforo Monzón, Plácido Muxika, Jokín Zaitegi eta Agustín Zubikarai.

XABIERKO FRANTZISKO euskararen eguna



GURE MENDEA liburuk

Euskararen Eguna ospatu zen abenduaren 3an, hala Euskal Herrian nola diasporako zenbait herritan ere. Berez, lehenengo Euskararen Eguna 1949ko abenduaren 3an egin zen. Orduan, espainiar estatuko egoera politikoa tarteko, Euskararen Egunaren ekitaldiak Iparraldean eta Amerikako hainbat lekutan burutu ziren. Jatorrian, ospakizun hau Eusko Ikaskuntzaren sorrerari estu loturik dago.

Erakunde dinamikoa

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundien eraginez. Urte horretako irailean bertan egin zuen lehen kongresua eta, bertan, erakundearen helburuak zehaztu ziren. Helburuetan nagusia, euskal kulturaren sustapena eta iraupena ziurtatzea.

Garaiko erakunderik dinamikoena izan zen Eusko Ikaskuntza 1918tik 1936ra. Besteak beste, erakundeak etorkizuneko euskal unibertsitatearen diseinua egin zuen, autonomia estatutuaren testua idatzi, uda ikastaroak antolatu, Euskaltzaindiaren sorrera bultzatu, ikastoletarako testu-liburuak argitaratu e.a. Gainera, sei biltzar ere burutu zituen, arrakasta handiz burutu ere, aldiari aditu eta ikertzailek puntakoenak bildu baitzuten kongresu horietan.

Giro horretan, Eusko Ikaskuntzak euskal gizartearen arlo denetara zabaldu nahi izan zuen euskal kulturari buruzko kezka eta, Euskaltzaleak Bazkunak bitarte, antzerki eta olerti egunak, bertsolari egunak eta gisakoak antolatu izan zituen.

Nazioarteko Eusko Ikaskuntza

Eusko Ikaskuntzaren ekimenak bertan behera geratu ziren Espainiako Gerra Zibilaren eta gerra ostean ondorioz. Iparraldean, Erakundearen sua pizturik irunarazten saiatu zen Joxe Miel Barandiaran eta Nazioarteko Eusko Ikaskuntza bultzatu zuen. Horren bidez, beste bi biltzar ere egin zituen instituzio honek, bata Miarritzen 1948an eta bestea Baionan 1954ean. 1948an, gainera, Iparraldeko Euskaltzaleen Biltzarra ere lanean hasi zen eta euskararen aldeko kultur ekitaldiak berpiztu egin ziren.

Ekimen hauek denek Euskararen Eguna aldarrikatzera bultzatu zuten Nazioarteko Eusko Ikaskuntza 1949ko abenduaren 3arekin batera. Harrezkero, ospakizunak egun horixe izan du egutegian.

Lehenengo Euskararen Eguna Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ospatu zuten eta on handia egin zion bai euskarari, bai euskal literaturari oro har, idazle belaunaldi berriari ireki baitzuen bidea. Idazle horien artean ziren, besteak beste, Piarres Lartzabal, Augustin Zubikarai, Piarres Xarriton, Mari Jeanne Minabery, Iratzeder, eta beste batzuk.

Kanpoko Gizataldeen Mundu Biltzarra

Euskal Herrian ez ezik, Parisen, Mexikon, Caracasen, New Yorken eta bestetan ere ospatu zen Euskararen Eguna. Geroztik, urtero egin da egunaren ospakizuna, Xabierko Frantziskoren egunean beti ere.

1995ean, Kanpoko Gizataldeen Lehen Mundu Biltzarrean, Uruguaiako ordezkariak egunaren berrindartzeko proposamena egin zuen. Diasporako euskaldunek egun handizat zutena Euskararen Eguna ofizial izendatzeko eskatu zuten uruguaiarrek.

Eusko Jaurilaritzak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zuten proposamena eta abenduaren 3a, Xabierko Frantziskoren eguna, Euskararen Eguna izendatzea erabaki zuten.


Aurten, bestalde, eguna arunt berezia izan da, 50 urte bete baitira lehen Euskararen Egun hartatik. Era askotako ekitaldiez gainera, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak Xabierko Frantziskoren bizitza eta lanak biltzen dituen argitalpena kaleratu du.

Euskarazko komunikabide lokalen gaineko Tesia

UPV-EHUko irakasle eta kazetari Asier Arangurenk burutu du ikerketa



EUSKALDUNON EGUNKARIA



- Gipuzkoan eta Nafarroan argitalpen eredu egokia izan da. Aldiz, Bizkaian, Araban eta Iparralden hala udalek nola Foru Aldundiek laguntza handiagoak eskaini behar dituzte.
- Herri-komunikabideek beren enpresa egitura hobetu beharra dute, hala kontabilitateari nola finantziarioari dagokionez. Horretan, autofinantziarioa behar bezala landu ez den bidea da oraindik, eta fundazioa izan liteke soluzioetako bat. Bazkideen figura ere ez da behar beste joratu.
- Alde handia dago herri-aldizkari batzuen eta besteen artean, era guztietakoak daude, bai diseinuari zein maketazioari denaz bezainbatean, baina, oro har, hobetu beharra dute.
- Lanean ari diren profesionalen egoera ere hobetu beharra dago.
- Euskararen ereduak ezin du bazter laga euskalkia, euskara batua-aren eredutik gehien aldentzen diren euskalkien kasuan batik bat.
- Tokian tokiko komunikabideek teknologia berrien mundua arretaz segitu behar dute, eta beren produktuak Internet bidez zabaldu leku guztietara.

Doktore-tesia irakurri du Asier Aranguren kazetari eta irakasleak euskarazko komunikabide lokalei buruz. *Cum laude* kalifikazioa. Izenburua, "Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian".

Tesi honetan, Asier Aranguren euskara hutsez ari diren herri-aldizkari, telebista eta irratiak aztertu ditu. 1989an kokatu du ikertzaileak herri-aldizkariaren sorrera, eta 1996 urte bitarteko eboluzioa aztertu du. Irrati eta telebistek dagokienez, kopuruz askoz gutxiago direnez, 1998 urte arte aztertu ditu Arangurenk.

HERRI-ALDIZKARIENTZAKO PROPOSAMENA

Asier Arangurenk 46 herri-aldizkari aztertu ditu, Arrasate Press-i eta Ttipi-Ttapari arreta berezia jarritz. Tesiak herri-aldizkariaren historiaren berri ematen du. Bestalde, beren ezaugarriak, nortasun juridikoa, finantziarioa, teknologia, banaketa eta abar ere aztertzen ditu, eta horien deskribapena egin ondoren, hemezortzi ondorioetara iristen da, etorkizunerako neurriak proposatu aurretik. Hauetarik zenbait zehaztuko ditugu jarraian:

IRRATI ETA TELEBISTAK

Asier Arangurenk bost toki-telebistaren kasua aztertu du. Honako hauek dira: Arrasate TB, Atxabalta TB (Aretxabaleta), Oarso TB (Oiartzun), Ttipi-Ttapa TB (Bera), Xalao TB (Elizondo), eta Zarautz TB. Irratiak, berriz, Oñati Irratia, Arrasate I., Aralar I. (Lekunberri), Karrape I. (Leitza) eta Esan-Erran I. (Basaburua).

Tesiaren irakurketaren ondoren ikertzaileak adierazi duenez, euskarazko toki-telebistak kinka larrian dira, eta aurrera egiteko garaia iritsi da, indarrean diren proiektuak indartu eta sendotzeko. Ohar bera egin liteke toki-irratieki dagokienez.

Tesiaren egileak lekuan lekuko enpresa multimediak sortzea ere proposatu du, herri-aldizkariak, toki-irradiak eta toki-telebistak erredakzio bat bera bana dezaten, eraginkortasun sozial eta linguistiko handiago lortzeko.

Izen eta deituren gaineko agindua

Izen eta deituren gaineko azaroaren 5eko lege berri baten arabera, hemendik goiti nahi duen pertsona orok legez posible izango du gaztelaniako izenaren truke, Estatuko beste edozein hizkuntzatan izen horrek duen baliokidearen aldaera ezartzea. Aski izango da horretarako Erregistrora jotzea, non bertako arduradunak gaztelaniako izena aldatuko dion baliokide onomastikoa ezarri.

Era berean, deituren ortografia ere aldatu ahal izango da, erregistroan ageri den forma Estatuko beste hizkuntza baten gramatika eta fonetikarekin bat ez datorrenean.

Azaroaren 5eko lege honen arabera, gainera, gurasoek, bien adostasunez, beren lehen deituraren transmisio ordena erabaki ahal izango dute, erregistroan jaso baino lehen. Erabakitako ordenak ondoren jaiotako deituren ordena aginduko du. Aukera honetaz baliatzen ez denari, orain arte legeak agintzen zuena aplikatuko zaio eta, hortaz, aitarien deitura izango da lehen transmitituko dena.

WILLIAM A. DOUGLASS

“Lagun Onari” sariduna

Renoko (Nevada) Euskal Mintegiko koordinatzaile da sortze beretik 1978an



ZALDIERO



ZALDIERO

“**L**agun Onari” Saria jaso zuen William Douglass antropologo estatu batuarak urriaren azken astean Gasteizen burutu zen Kanpoko Euskal Gizataldeen II. Mundu Biltzarraren inaugurazio ekitaldian.

William Douglass antropologoak bere bizian izandako ohorerik handiena balitz bezala jaso zuen saria. Adierazi zuenez, “sari honek pertsona askok elkarrekin batera egindako lana ohoratzen du. Euskal Mintegia izan ez balitz ni ez nintzatekeen hemen izango, baina esan beharra daukat Mintegi hori urte askoan ehundaka lagunek egindako lanari esker aterata dela aurrera”.

William Douglass ez da euskalduna,

ezta, berak esaten asmatu duenez, “euskaldun-gidoidun” komunitate horretako kide ere: ez da euskal-venezuelarra, ez euskal-argentinarra, ez euskal-txiletarra... Hala ere, orain arte egin diren Kanpoko Euskal Gizataldeen Mundu Biltzar bietako inaugurazio ekitaldiko hizlaririk nagusia izan da.

Antropologo hau Renoko (Nevada) Euskal Mintegiko koordinatzaile da programa 1978an sortu zenetik eta urte honen bukaeran erretiratzekoa da. Euskal Mintegiko administrazio lanak lagako ditu baina ez ikerketa lanak. Hemendik atzera, beraz, horri emanango dizkio ordu denak: ikerketari, alegia.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Tel.: 945 01 80 98

e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz

Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

www.durangokoazoka.com

DURANGOKO AZOKA SAREAN

Durangoko Liburu eta Diska Azoka sarean da, web orria baitu Interneten, www.durangokoazoka.com helbidean. Oraingoz, web gune honek katalogo bat biltzen du bere baitan. Bertan, 20.000 liburu, disko, software eta beste zenbait materialen berri ematen da, bai eta idazle eta argitaletxeen gaineko informazioa ere.

2.000 urteaz gero, katalogoak biltzen dituen produktuen salmentari ere bide egin nahi dio web gune honek.

Gerediaga Elkarrekin burutu du proiektua, eta zenbait laguntza ere izan du horretarako. Euskaltel, Eroski eta BBK izan dira babesle, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, berriz, laguntzaile.